

# Hau ospatu beharra zagonk!

Albiste-testuetan uste baino sarriago errepikatzen dira esamoldeak, egiturak eta esaldi osoak ere. Horietako bat nazioarteko egunak dira, urtean pila bat. Hainbeste izanda, komeni da nazioarteko egunen berri emateko esamolde eta egitura egokiak jakitea.

Bihar, ekainak 5, Ingurumenaren Nazioarteko Eguna dugu. Arazo horren berri emateko eta izadiaren hondamendiaz ohartarazteko, hainbat ekitaldi eta ekintza izango dira. Ospatu, berriz, ez dugu ospatuko.



## 1- Hileta bat ospatu?

Aditz honek esan nahi du pozteko gertaera edo eguna gogoratzea, edo gertakari batengatik poza adieraztea. Esaterako, urtemugak, ezkontzak, garaipenak, gabonak... ospatu egiten dira.

### \* Ez erabili honelakoetarako:

- Azaroan abentura liburuei buruzko batzarra \*ospatuko da Gasteizen.
- Gaur \*ospatu da Michael Jacksonen epaiketa Kalifornian.
- Europako Batzordeak goi-bilera \*ospatu du Salonikan.

## Nazioarteko egunak... ospatu?

Egutegiko hainbat egunek izendapen berezia dute. Horien berri emateko, honelako esapideak erabiltzen ditugu:

- \* Tabakorik Gabeko Eguna da gaur munduan.
- \* Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna izango da bihar.
- \* Dantzaren Eguna dugu.

Gaixotasun edo gaitzen bat denean, ondo sartzen dira «aurkako» eta «kontrako» hitzak, baina ez dira nahitaezkoak.

- \* Minbiziaren Aurkako Eguna.
- \* Hiesaren Nazioarteko Eguna.
- \* Drogaren Aurkako Eguna (baina ez \*Drogaren Eguna).

Eta baztertu beharreko kontzeptuetan, honelako aditzak erabil daitezke: «gaitzetsi», «salatu», «borrokatu»...

- \* Emakumeenganako Tratu Txarrak Gaitzesteko Eguna.
- \* Ustelkeria Borrokatzeko Eguna = Ustelkeriaren Kontrako Eguna.

Beraz, gaitzesteko moduko kontzeptuei erreferentzia egiten dioten egunak ere ez ditugu ospatuko. Nolanahi ere, zentzuz jokatzeko da kontua. Izan ere, badira egun batzuk ospatzeko modukoak.

- \* Euskararen Eguna ospatuko dugu bihar.
- \* Gay eta lesbianek modu ikusgarrian ospatu dute euren eguna.

## 2- Ezkondu egingo gara!

Mikelek eta Onintzak beraien lagun batzuekin kalean topo egingo dute. Entzun elkarrizketa bi aldiz, eta ondoren, zure ulermena proban jartzeko zenbait galderari erantzungo diezu.

### 1. Zertan ari dira Mikel eta Onintza? Aukeratu erantzun zuzena.

- Abisuak banatzen ari dira, duela gutxi ezkondu egin direlako.
- Gonbidapenak banatzen ari dira, ezkondu egin zirelako.
- Gonbidapenak banatzen ari dira, ezkondu egingo direlako.

### 2. Hiru aukera hauetatik zein da egia?

- Mikelek eta Onintzak oraindik ez dakite nora joango diren, eztei-bidaian.
- Mikel eta Onintza, eztei-bidaian, Thailandiara joango dira.
- Mikel eta Onintza, eztei-bidaian, Cancunera joango dira.

### 3. Noiz eta non ospatuko da Mikel eta Onintzaren ezkontza?

- Abuztuaren 17an, Hondarribiako Guadalupe santutegian.
- Uztailaren 27an, Donostiako Santa Maria basilikan.
- Uztailaren 7an, Hondarribiako Guadalupe santutegian.

### 4. Erreparatu azpimarratutako hitzaren esanahiari: "eta, soinekoa, honezkero erosita edukiko duzu, ezta?" Zer adierazi nahi du?

- Erosi duen soinekoaz zalantza handiak dauzkala.
- Ziur dago soinekoa erosita duela.
- Suposatzen du soinekoa erosita duela, baina zalantza dauka.



### 3- Ezteietako gonbidapena

Jon eta Maite ere laster ezkondu egingo dira, baina oraindik beraien lagunak ez dakite. Irakurri elkarrizketa, eta osatu ezazu, hutsune bakoitzean dagokion esapidea edo egitura aukeratuta. Hori egin ondoren, emaiizu elkarrizketari zeuk nahi duzun bukaera.

Eneko- Aupa, bikote, zenbat denbora zuek ikusi gabe!. Baina zuek. \_1\_\_\_\_\_

M- Ba, hementxe, erosketa batzuk egiten gabiltza.

Eneko- Erosketak? Bai, poltsa-falta ez duzue behintzat. \_2\_\_\_\_\_

M- Ba, datorren hilabetean \_3\_\_\_\_\_!

E- Benetan? Nik uste nuen zuek \_\_4\_\_\_\_\_! Hau bai ustegabea!

M- Egia esan, aspalditik genuen pentsatua, baina, eguna ezin erabakita ibili gara. Ah, eta ezkontzara gonbidatuak zaudete! Hortaz, zuek ere \_\_5\_\_\_\_\_ hasi beharko duzue.

E- Nola? Gu ere gonbidatuak gaudela? \_\_6\_\_\_\_\_

M- Bai, motel, halaxe da! Eta \_\_7\_\_\_\_\_ non izango den ezkontza!

E- Ez dakit ba, baina zuek ezagututa, \_8\_\_\_\_\_ ondo pentsatua izango duzue.

M- Ba,... Zumaiako San Telmo basilizan!

L- Alajaina! Oso ideia ona iruditzen zait, toki zoragarria da, eta gainera bista ikusgarriak ditu, eh!

E- Bai, baino okerrera zera da.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....

#### Aukerak

(1) nola hemen?  
hemen zertan?  
nolatan hemen?

(2) Zergatik horrenbeste poltsa?  
Zergatik horrenbeste poltsak?  
Zer dela eta hain poltsa?

(3) ezkontzeko asmoa daukagulako  
ezonduko asmoa dugulako  
ezkonduko dugulako

(4) ez zinetela ezkondu  
ez zinetela ezkondu beharko  
ez zenutela ezkondu behar

(5) erosketak egiten  
erosketak egitera  
erosketak egiteaz

(6) Ez da egia izango!  
Gezurra esan duzu!  
Ez da izango egiairik

(7) ezetz asmatu  
ea asmatzen duzu  
ez duzula asmatzen

(8) honezkero  
harrezkero  
dagoeneko

## 4- Ospakizunaren ajea

Jon eta Jone ezkontza batean izan dira eta mutilak ajea dauka eta neska haserre dago mutila mozkortu zelako. Entzun elkarrizketa eta entzundakoan aukera itzazu erantzun zuzenak.

### 1- Badirudi Jone haserre dagoela.

#### Zergatik?

- Bezperako ezkontzan Jon itxurarik gabe mozkortu zelako.
- Bezperako ezkontzan Jonek amerikana zikindu zuelako.
- Bezperan ezkontza batera joan zirelako.

### 2- Zein animaliarekin konparatzen Jonek Jon?

- Ahatarekin
- Bongoarekin
- Tximinoarekin

### 3- Jone amerikanarekin putzuko ahateak ehizatzen ahalegindu zen.

- egia
- gezurra

### 4- Jonek ez du aspirinarik bere poltsan.

- egia
- gezurra

### 5- Joneren aita ere mozkortu egin zen.

- egia
- gezurra

### 6- Udaltzainak amerikana aurkitu zuen.

- egia
- gezurra

### 7- Jonek ihesean irten zirenean, oinetakoko takoia apurtu zuen.

- egia
- gezurra

### 8- Joneren aitak matoi siziliar batzuk kontratatu zituen Jon akabatzeke.

- egia
- gezurra



Osa itzazu ondoren dituzun konparaziozko moldeak:

Akerraren adarra baino .....

Astoaren ipurdia baino .....

Txakurraren muturra bezain .....

Abenduko eulia baino .....

Gogoratzen al duzu bizitzan zehar izandako ospakizun bereziren bat? Lagun baten ezkontzako parranda gogoangarria, lehengusinaren jaunartzean apaizak mozkorra harrapatu zueneko, zure futbol taldeko urteurreneko ospakizuna... Konta iezaiozu ikaskide bati e-maila batean.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....



## 2- Ezkondu egingo gara

1. **Zertan ari dira Mikel eta Onintza? Aukeratu erantzun zuzena.**

- Gonbidapenak banatzen ari dira, ezkondu egingo direlako.

2. **Hiru aukera hauetatik zein da egia?**

- Mikel eta Onintza, eztei-bidaian, Thailandiara joango dira.

3. **Noiz eta non ospatuko da Mikel eta Onintzaren ezkontza?**

- Uztailaren 7an, Hondarribiako Guadalupe santutegian.

4. **Erreparatu azpimarratutako hitzaren esanahiari: "eta, soinekoa, honezkero erosita edukiko duzu, ezta?" Zer adierazi nahi du?**

- Suposatzen du soinekoa erosita duela, baina zalantza dauka.

## 3- Ezteietako gonbidapena

Eneko- Aupa, bikote, zenbat denbora zuek ikusi gabe!. Baina zuek **(nolatan hemen?)**

M- Ba, hementxe, erosketa batzuk egiten gabiltza.

Eneko- Erosketak? Bai, poltsa-falta ez duzue behintzat. **(Zergatik horrenbeste poltsa?)**

M- Ba, datorren hilabetean **(ezkontzeko asmoa daukagulako)** !

E- Benetan? Nik uste nuen zuek **(ez zenutela ezkondu behar)** ! Hau bai ustegabea!

M- Egia esan, aspalditik genuen pentsatua, baina, eguna ezin erabakita ibili gara. Ah, eta ezkontzara gonbidatuak zaudete! Hortaz, zuek ere **(erosketak egiten)** hasi beharko duzue.

E- Nola? Gu ere gonbidatuak gaudela? **(Ez da egia izango!)**

M- Bai, motel, halaxe da! Eta **(ezetz asmatu)** non izango den ezkontza!

E- Ez dakit ba, baina zuek ezagututa, **(honezker**o) ondo pentsatua izango duzue.

M- Ba,... Zumaiako San Telmo baselizan!

L- Alajaina! Oso ideia ona iruditzen zait, toki zoragarria da, eta gainera bista ikusgarriak ditu, eh!

E- Bai, baino okerrera zera da.....



## 4- Ospakizunaren ajea

1- Badirudi Jone haserre dagoela. Zergatik?

- Bezperako ezkontzan Jon itxurarik gabe mozkortu zelako.

2- Zein animaliarekin konparatzen Jonek Jon?

- Tximinoarekin

3- Jone amerikanarekin putzuko ahateak ehizatzen ahalegindu zen.

- egia

4- Jonek ez du aspirinarik bere poltsan.

- gezurra

5- Joneren aita ere mozkortu egin zen.

- egia

6- Udaltzainak amerikana aurkitu zuen.

- gezurra

7- Jonek, ihesean irten zirenean, oinetakoko takoia apurtu zuen.

- egia

8- Joneren aitak matoi siziliar batzuk kontratatu zituen Jon akabatzeko.

- gezurra

Akerraren adarra baino (**bihurriagoa**)  
Astoaren ipurdia baino (**itsusiagoa**)  
Txakurraren muturra bezain (**hotza**)  
Abenduko eulia baino (**lotsagabeagoa**)